



UDALEKUAK





Bazen behin, zaratatik urrundutako itsasbazter eder bat. Toki liluragarri hau Gerníkako erreka, hondartza, ibai, mendi, baso, itsasadar eta padurez inguratuta zegoen. Urdaibai izenez ezaguna, Bizkaiko kostaldean kokatutako Biosferako Erreserba zen, herrialde honen harribitxia. Bertan zuhaitz mota ezberdinez betetako basoetan hegazti eta animalia asko bizitzera gelditu ziren. Inguru horretara hurbiltzen zirenak harrituta itzultzen ziren. Hala ere, naturak eskainitako altxor honetaz gehien gozatzen zutenak Oxínako haran txikira gerturatutako haur guztiak ziren. Ezkututako Oxínako kubeta horretan Baratze izeneko baserria zegoen. Urtero bertaratutako milaka lagun abentura zoragarriak bizitzera etortzen ziren. Lurra lantzen eta etxe-abereak zaintzen irakasten zizkieten bitartean, jolasean, dantzan, korrika eta kantuka besteekin elkarbizitzen ikasten zuten.

Aurkibidea

Aurkezpena.....	
1. Kokapena.....	
2. Gure helburuak.....	
3. Metodologia.....	
4. Egonaldia Baratzen.....	
4.1. Ordutegia.....	
4.2. Taldeen antolaketa.....	
4.3. Egonaldi motak.....	
4.4. Begiraleen papera.....	
4.5.- Kalitatezko elikadura.....	
5. Baserri eskolako tailerrak	
5.1. Sukaldea.....	
5.2. Korta.....	
5.3. Baratza.....	
5.4. Loragintza-Onddoak.....	
5.5. Eskulangintza-Zur lanketa.....	
5.6. Ibilbidea.....	
5.7. Zaldia.....	
5.8. Gaubela.....	
6. Kirolak: Ur kirolak, ETA parke abentura.....	
7. Baliabideak.....	

Aurkezpena

Baratze Ingurugiro Heziketa Eskolan aurrera eramaten den hezkuntza lana guztiz baiezkorra da. Alde batetik, haurrentzat ezezaguna den mundu berri baten esperientzia bizi-bizia eta erakargarria suposatzen du, eta beste alde batetik, eskolan jasotzen duten hezkuntza prozesurako laguntza oso baliagarria da.

Haur guztiek behar, interes eta ikasteko era ezberdinak dituzte. Horri erantzuna emateko, egonaldiko ekintzak eta tailerrak diseinatzerako orduan Hezkuntza kurrikuluma kontuan hartu dugu.

Egonaldian zehar inguru naturala izango da gure tresna garrantzitsuen adimen anitzak estimulatzeko. Aldi berean, bost zentzumenak garatzeko aukera izango dute haurrek: ikusmena, dastamena, entzumena, ukimena eta usaimena.

Umeek egonaldia bizi eta gozatzea dugu helburu nagusi. Horretarako, proposatutako ekintzetan haiek dira protagonista bakarraik, haien autonomia eta ikaskuntza esanguratsua bultzatuz.

Guzti hau kontutan hartuz eta honez gain igarotako 35 urte baino gehiagok eta 200.000 haur baino gehiagok emandako esperientzian oinarriturik, haurren egonaldia Baratzen inoiz ahaztuko ez duten abentura bihurtuko dela esan dezakegu inolako beldurrik gabe.

1. Kokapena

Baratze Baserri-Eskola Oxina baserrian aurkitzen da, Bizkaian, Gautegiz Arteagan dagoen Basetxetas auzunean eta "Urdaibaiko Babeslekua"-ren barnean.

Gure hezkuntza-esperientzia aurrera eraman ahal izateko inguru ezin hobean kokatzen gara. Oso hurbil ditugu itsasadarra, hondartzak eta itsaspadurak, zuhaitz mota ezberdinez osaturiko basoak, mendixkak, flora eta fauna ugaria ...



1. irudia: Baratze Baserri-Eskolara heltzeko mapa

2. Gure helburuak

Gure helburu nagusiak hauek direla esan genezake:

1. Umeen adimen eta zentzumenak estimulatzea.
2. Umeen behar, interes, ezagutza eta adimen guztiei erantzuna ematea.
3. Elkarbizitzarako balioak sustatzea.
4. Naturarekiko errespetua, gozamina eta maitasuna bultzatzea.
5. Euskara/ingelera komunikazio-tresna gisa erabiltzea.

3. Metodologia

Baratze Baserri Eskolako proiektua ikuspegi konpetentzietatik diseinatuta dago, ikasleen ikaskuntza-prozesua egoera errealean eta esperientzia esanguratsuetan oinarrituz. Metodologiaren ardatza haurrek duten parte-hartze aktiboa da, haien aurretiko ezagutzak, interesak eta ikaskuntza-eritmoak errespetatuz.

Printzipio metodologikoak

Proiektuaren metodologia honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- **Ikaskuntza esanguratsua:** haurrek bizitako esperientziak aurretiko ezagutzekin lotzen dituzte, ikaskuntza funtzionala eta iraunkorra lortuz.
- **Ikasleen protagonismoa:** haurrak beren ikaskuntza-prozesuaren erdigunean kokatzen dira; behatu, esperimentatu, galdetu eta erabakiak hartzen dituzte.
- **Ikaskuntza esperientziala eta manipulaziozkoa:** jarduera guztiak esperimentazio zuzenean, manipulazioan eta ekintzan oinarritzen dira.
- **Ikaskuntza kooperatiboa:** talde txikietan egindako lanak lankidetzara, errespetua eta erantzukizun partekatua sustatzen ditu.
- **Ikaskuntza inklusiboa:** ikasle guztien parte-hartzea eta arrakasta bermatzeko, jarduerak malguak eta egokigarriak dira.
- **Ikaskuntza emozionala:** emozioen identifikazioa, adierazpena eta kudeaketa zeharka lantzen dira jarduera guztietan.
- **Ingurune naturalaren erabilera didaktikoa:** natura ikaskuntzarako baliabide nagusitzat hartzen da.

Historian zehar ikuspegi eta metodologia ezberdinak agertu dira. Guk bakoitzeko onena hartzen saiatzen gara hurrei irakaskuntza integral eta

pertsonalizatua emateko. Gure ustez, umeak ez du bakarrik eskolan edo etxean ikasten, estimulua egokia baldin bada haurrak edozein lekutan ikas dezake.

Gure jardutearen oinarriak hurrengoak dira:

- Ikaskuntza esanguratsua.
- Haurraren protagonismoa: aktiboa, bere ezaguera eraikitzen du eta.
- Irakaskuntza pertsonalizatua, umearen jakin-minen arabera.
- Lan kooperatiboa.
- Motibazioaren sustapena.
- Ikasteko gozamenaren bilaketa.
- Sormena eta esperimintazioaren garapena.
- Behaketaren garrantzia.
- Hurrei egokitutako lekua.
- Autonomiaren sustapena.
- Besteekiko eta naturarekiko errespetua.

4. Egonaldia Baratzen

Baratzeko egonaldiak gure lurraldeko ikasleentzako bilgunea izan nahi duen hezkuntza saioa suposatzen du. Bertan ikasleek inguru herritar eta natural ezin hobe batean barneratzeko aukera dute, ingurunea ezagutuz, errespetatuz eta zainduz.

Ekintza printzipioak benetako esanahia har dezan, Baserri-Eskola girorik onena bilakatzen da, oinarri zientifikoak beti kontutan harturik, esperimentazio zuzena egiteko aukera ematen du eta.

4.1. Ordutegia

8.30	Denok gora!
9.00 - 9.30	Gosaria
9.30	Autobusera
11.00 - 13.30	multiabentura
13.30	Autobusera
14.00 - 15.00	Bazkaria
15.00 - 16.00	Astiaaldia
16.00 - 17.30	Tailerra edo pizina
17.30 - 18.00	Askaria
18.00 - 19.30	Tailerra edo pizina
19.30 - 20.00	Astiaaldia
20.00 - 21.00	Afaria
21.00 - 22.30	Gaubela
22.30 - 23.00	Kola-kao beroa
23.00	Ohera!

4.2. Antolaketa

Umeak Baratzerara heldu bezain laister, batzar bat egiten dugu:

- Nortzuk garen, zer egingo dugun eta arauen bat azaltzen diegu.
- Logelak eta lan taldeak eta antolatzen ditugu.

Txanda guztietan adina 5 urtetik 14 urtetara izango dela kontuan harturik, adinaren arabera taldeak egiten ditugu, baina beti beraien lehentasunak kontuan hartuz.

4.3. Egonaldi motak

Baratzerara etorri nahi baduzue zenbait aukeren artean aukeratu ahal izango duzue.

HIZKUNTZA:

1. Euskaraz
2. Ingeleraz.

EGONALDIAREN IRAUNPENA:

	Sarrera	Irteera	Ekintzak
PAZKO ASTEAN – 4 EGUN	12:00tan	15:00tan	BaseRri eskola Irteera. Euskera
EKAINA – 10 EGUN edo 5 EGUN	17:00tan	12:00tan	BIGSUP-Abentura park Euskera
UZTAILA 1-10 – 10 EGUN	17:00tan	12:00tan	BIGSUP-Abentura Park Euskera
UZTAILA 11-20 – 10 EGUN	17:00tan	12:00tan	BIGSUP-Abentura Park Euskera
UZTAILA 21-30 – 10 EGUN edo 5	17:00tan	12:00tan	Padel Kanpusa BIGSUP-Abentura Park Euskera
SUMMER CAMP- 21 th -30 th	17:00tan	12:00tan	Padel Kanpusa BIGSUP-Abentura Park Ingelera

EGONALDIAREN ANTOLAKETA:

Autobusak arratsaldeko 16:00etan Bilbotik ateratzen dira. Umeen jatorria ikusi ostean, beste leku batzuetara bidaltzerik dago.

Txanda guztietan hurrengo programazioa jarraituko dugu:

- Multiabentura eta ur kirolak:**

Goizero kirolean arituko gara. Ur kirolak eta BIGSUP eta Parkeabentura;

- Laidan edo Lekeition **UR URDAIBAI-ko** monitoreekin, **multiabentura**, bereziki, ur kirolak: surf, arraunketa, kanoak, Stand Up Padel, BigSUP.
- Mendexan, Abentura Park, Multiabentura egiteko: Rapel, Tirolina, tunelak, etabar...
- Eta, arratsaldetan baserriko ekintzak, astikoak, jokuak pizina, e.a....,

Hurrengoan programazio modelo bat daukazu:

Uztaila	1. eguna	2. eguna	3. eguna	4. eguna	5. eguna	6. eguna	7. eguna	8. eguna	9. eguna	10. eguna
		kanoak	Abentura Park	BIGSUP	Baserriko ekintzak	Abentura Park	Baserriko ekintzak	BIGSUP	Baserriko ekintzak	DUTXA POLTSAK BATU
					PISZINA DUTXA				PISZINA DUTXA	
		DUTXA	DUTXA	DUTXA	TAILERRA	DUTXA	DUTXA	DUTXA	TAILERRA	
		BAZKARIA	BAZKARIA	BAZKARIA	BAZKARIA	BAZKARIA	BAZKARIA	BAZKARIA	BAZKARIA	
	Aurkezpena Taldea Logelak	Baserriko ekintzak	Baserriko ekintzak	Baserriko ekintzak	Baserriko ekintzak	Baserriko ekintzak	Baserriko ekintzak	Baserriko ekintzak	Baserriko ekintzak	
		Astiko Tailerra	Astiko Tailerra	Astiko Tailerra	Astiko Tailerra	Astiko Tailerra	Astiko Tailerra	Astiko Tailerra	Astiko Tailerra	
GAUBELA	PISTEN RALLIA	DISKO TXIKI	BATUKA	MASTER CHEF	GINKANA	KARAOKE	JOKUAK	FROGEN RALLIA	JAIA	

Izenemateak era indibidualean webgunearen bidez egiten dira. Gero guk taldeak egiten ditugu adinaren arabera; beti lagunak elkarrekin jartzen ditugu; edonola, umeak beti taldez aldatzeko aukera daukate. Guretzat umeak gustora ibiltzea inportanteena da.

Lehenengo eguna oso garrantzitsua da taldea sendotzeko. Egun horretan ez daude astialdiak umeak ez ibiltzeko patiotik ezer egin gabe eta bakarrik. Momentu guztietan taldearekin daude, elkar ezagutzeko eta beraien begiralea ere ezagutzeko. Momentu aproposena da persona arteko adimena garatzeko.

Gurasoek Baratzerara deitzeko aukera daukate umetaz galdetzeko, baina txikiak direnean ez da oso komenigarria beraiekin berba egitea, hobeto monitorearekin hitz egiten badute. Umeek gure telefonotik deitzeko aukera daukate beti, horrexegatik sakeleko telefonoak ez dira beharrezkoak eta komenigarriak ere ez. Edozein gertaera suertatuz gero telefonoz deituko dizuegu.

Egunero APP-an, atal pribatuan (pasahitzaz babestua) argazkiak zintzilikatuko ditugu zuek egin dutena ikusteko. Pasahitza mailez bidaliko dizuegu.

4.4. Begiraleen papera

Egun hauetan begirale bakoitzak bere umeentzat erreferentzi bakarra da. Berak umeak zainduko ditu momento guztietan eta beraien gauzaz arduratuko da: goizero logela txukunduko dute, arropa eta bakoitzaren gauzak batuko ditzute, egunero duxtatuko dira, botikaz arduratuko da, eta gauez logeletan umeak lokartu harte beraiekin egongo da. Egunean zehar programatuta dauden astiko ekintzak haiek ere burutuko dituzte.

Baratzen garbitzaile eta garbitokia daukagu edozein momentuan behar izanez gero arropa garbitzeko, holan umeak beti txukun ibiliko dira.

Baratzeko irakaslekoak 36 urte baino gehiagoko esperientzia daukate, beraz oso kalifikatua da proramzazioa prestatzeko, antolaketa egiteko eta begiraleei lagundu, zuzendu eta ikuskatzeko, umeak ondo zainduta egon daitezela bermatzeko eta jarduera bakoitzaz goza dezaten. Baratze-ko talde pedagogikoak eragin bakoitzaren jakinaren gainean egon behar du hura ebatzi ahal izateko.

Gerotxeago, Baratzen egin daitezkeen jarduera guztiak zehazten dizkizuegu. Bai noski, ezin dituzte guztiak egin, eta beraz adin bakoitzerako egokituenak eta gehiago gozatuko dutenekin aukeratuko ditugu.

4.5.- Kalitatezko elikadura gure udalekuetan: osasungarria, bertakoa eta jasangarria

Gure udalekuetan, elikadura askoz gehiago da otordu soil bat baino: haurren ongizaterako funtsezko osagaia da. Badakigu elikadura egokiak eragin zuzena duela haurren energian, kontzentrazioan eta aldarlean, eta horri esker jarduera bakoitzaz ahalik eta gehien goza dezaketela.

Horregatik, plater bakoitza **produktu freskoekin, sasoiakoekin eta bertako ekoizleen eskutik** prestatzen dela ziurtatzen dugu, betiere **kalitate-ziurtagiridun produktuak** erabiliz.

Zergatik egiten dugu elikadura-eredu honen alde?

1.- Sasoiako osagaiak:

Frutak, barazkiak eta bestelako elikagaiak une egokienean hautatzeak mantenugai gehiago, zapora hobea eta ingurumen-inpaktu txikiagoa bermatzen ditu. **Kontserbagarririk eta bestelako gehigarririk gabe.**

2.– Tokiko ekoizleen babesa:

Eskualdeko nekazari, abeltzain eta saltokiekin lan egiten dugu, ekonomia jasangarria sustatuz eta elikagaien jatorria eta trazabilitatea bermatuz.

3.– Kalitate ziurtatua:

Erabiltzen ditugun produktuek kalitate-zigiluak dituzte, haien jatorria eta balio nutrizionala bermatzen dutenak, haurrentzat onena eskainiz.

4.– Ingurumenarekiko konpromisoa:

Elikagaien garraioa murriztuz, karbono-aztarna gutxitzen dugu eta kontsumo arduratsuago eta jasangarriago baten alde egiten dugu.

Gainera, tokiko nekazari eta abeltzainek ekoiztako produktuen kontsumoak **biodibertsitatea eta ingurumenaren babesa** nabarmen laguntzen ditu.

Elikagai guztiak **egunean bertan prestatzen dira eta berehala zerbitzatzen dira.**

Gure udalekuetako otordu bakoitza haurrek **jolasteko, ikasteko eta gozatzeko behar duten energia eta mantenugaiak** emateko pentsatuta dago. Horrez gain, esperientzia honek aukera ematen die zapore berriak ezagutzeko, elikadura osasungarriari buruz ikasteko eta bizitza osoan lagunduko dieten ohiturak barnerat

5.- Baserri eskolako tailerrak

Tailerren bidez, haurrek Baratzen egiten duten egonaldia **ikaskuntza esanguratsu** bihurtzea eta **ulermenean oinarritutako heziketa** jasotzea da gure helburua. Egonaldian zehar hainbat alderdi garatzen dira modu integratuan:

- **Autonomia lantzea:** haur bakoitzak bere burua zaintzea, garbitzea, janzea eta bere gauzak jasotzea.
- **Bizikidetza eta ingurunearekiko harremana:** besteekin eta naturarekin elkarbizitzea, elkarri laguntzea, lan kooperatiboa egitea eta natura zaintzea.
- **Hizkuntzen erabilera komunikazio-bide gisa:** euskara eta/edo ingelesa egoera funtzionaletan erabiltzea.
- **Ingurune naturala ikaskuntzarako baliabide gisa:** Baratze kokatuta dagoen ingurune naturala tresna pedagogiko baliotsua da adimen eta gaitasun guztiak lantzeko, ikasleen emozioan eta interesan oinarritzen baikara. Gainera, zentzumen-estimulaziorako baliabide paregabea da.

5.1. Sukaldea

Sukaldeko tailerrean **konpetentzia matematikoa** lantzen da esperimentazioaren eta jolasaren bidez. Tailerra esperimentu moduan planteatzen da, non elikagai gordinak elikagai jangarri bihurtzen diren. Tailer honetan pentsamendu **deduktiboa eta induktiboa** garatzen dira, eta honako kontzeptu matematiko hauek lantzen dira:

- Sistema metriko hamartarra
- Kalkulua
- Geometria
- Bolumenak eta dentsitatea
- Nahasketa eta disoluzioa
- Probabilitatea

Egiten dituzten elikagaiak honako hauek izan daitezke: ogia, bizkotxoa, madalenak, gailetak... Matematikako kontzeptuak aplikatzeko baliabide gisa erabiltzen dira.

5.2. Korta

Animaliekin lotutako **termino, adierazpen eta hiztegi berria** lantzen da tailer honetan. Haurren eta animalien arteko harremanak jakin-mina pizten du, galderak sortzen ditu eta hurrei beren esperientziak adierazteko aukera ematen die.

Hizkuntza-konpetentzia lantzeko egiten diren jardueretako batzuk hauek dira:

- Animalia baten istorioa irakurri eta taldeka antzeztea.
 - Baserriko animaliei buruzko hiztegi eta kontzeptu berriak ikastea.
 - Animalien soinuekin lotutako abestiak ikasi eta bestei erakustea.
 - Animalien soinuak imitatzea eta komunikazio-bide gisa identifikatzea.
 - Animalia bati buruzko istorio kolektibo bat asmatzea.
 - Asmakizun eta igarkizunen bidez animalien izenak asmatzea.
 - Esamolde ezagunak erabiliz animalien portaerak ezagutzea.
 - Mihi-korapiloetan jolastea.
 - Animalien sailkapena egitea jaiotzaren eta elikaduraren arabera.
 - Taldeka ahozko azalpenak prestatzea eta aurkeztea.
 - Gustukoen duten animalia aukeratu eta aukeraren arrazoia idatziz adieraztea.
-

5.3. Baratza

Tailer honetan landare baten **ziklo osoa** ezagutzen dute haurrek: ereitea, landatzea eta birlandatzea. Landareen atalak ere aztertzen dira: sustraiak, zurtoina, hostoak, loreak eta fruituak.

Baratzeko barazki eta frutak ezagutu eta tresna egokiak erabiliz lan egiten dute.

Berezioki **lan kooperatiboa** lantzen da, taldekide guztien parte-hartzea ezinbestekoa izanik, lankidetzara eta elkarlana sustatzeko.

5.4. Loragintza

Lore-negutegian, haurrek loreen eta landareen beharrak ezagutzen dituzte. Haziak ereiten dituzte, lurra lantzen dute, landareak birlandatzen dituzte eta negutegia garbitzen dute. Jarduerak urtaroaren arabera aldatzen dira. Tailer honetan **emozioei** buruz hitz egiten da, loreetatik abiatuta haurren sentimenduetara iritsiz. Erlaxazio-ariketak ere egiten dira.

Onddoak

Onddoak aztertu eta ikertuz, ikasleek haien bizi-modua eta beharrak ezagutzen dituzte. Tailer honetan ere emozioak lantzen dira, perretxikoetatik abiatuta haurren sentimenduetara iritsiz, eta erlaxazio-ariketak eginez.

5.5. Eskulangintza

Arte-tailerrak dira, non haurrek irudimena eta sormena erabiliz objektuak sortzen dituzten: armiarmak, txorimaloak, kandelak, dortokak, etab.

Irakasleak gaia proposatzen badu ere, haurrek askatasuna dute nola eta zein materialekin egingo duten erabakitzeke.

Helburua **irudimen aktiboa** sustatzea da, egonaldian bizitakoa ekoizpen artistiko batean islatuz. Koloreak, testurak eta ikasitako kontzeptuak lotzeko aukera dute.

Zura lantzea

Arte-tailer honetan, hiru dimentsiotako lana sortzen dute bi dimentsiotatik abiatuta: egur zati batean Euskal Herriko lore tipiko bat marraztu eta lantzen dute.

5.6. Ibilbidea

Baratzeren inguruko bide eta basoetan zehar ibilbidea egitea da tailerraren oinarria. Naturari arreta jarritz, elementu handiak zein txikiak aztertzen dituzte. Basoko paseoetan pinudiaren eta baso autoktonoaren arteko desberdintasunak, sendabelarrak, biodibertsitatea, erreka eta putzuetako ekosistemak eta hegaztien bizimodua behatzen dituzte. Urdaibaiko Biosfera Erreserba zer den ere ikasten dute, eta orientazioaren oinarrizko nozioak lantzen dituzte.

5.7. Zaldia

Egonaldian zehar, haurrek zaldiz ibiltzeko aukera dute. Animalia ezagutzeaz gain, elikatu, orraztu, ukitu eta gainean ibiltzen ikasten dute. Jarduera honetan **gaitasun motorrak** lantzen dira: arnasketa, gorputzaren kontrola, jarrera, oreka, etab.

5.8. Gaubela

Afaldu ondoren eta ohera joan aurretik, hainbat jarduera egiten dira, non konpetentzia ugari lantzen diren; hala ere, **musikari** garrantzi berezia ematen zaio.

Jarduerak honakoak izan daitezke: abestiak sortzea, abestiak abestu gabe interpretatzea, diskotekan abestu eta dantzatzea erritmoa kontuan hartuta, etab.

Baratzen uste dugu **musika nonahi dagoela**: basoko eta naturako soinueetan, animalien soinueetan, eurian eta haizean. Haurrek soinu horiek entzun eta gozatzeko aukera dute tailer eta jarduera guztietan.

6. Kirolak: Ur kirolak, MULTIABENTURA

Ekintza hauek goizero egiten ditugu asteburuan izan ezik.

Urdaibaiko Biosfera erreserban gaude eta gure inguruan dauden errekursoak aprobetxatuz, beste ekintza batzuk antolatzen ditugu egonaldia askoz ere aberatsagoa egiteko nahian.

Kirolak Naturan: gure kostaldea baldintza gaindiezinak eskaintzen ditu abentura kirolak praktikatzeko. Horrexegatik baratzeako egonaldia aprobetxatuz. "UR Urbaibai"-ko monitoreak kontratatzeako aukera eskaintzen dizuegu. Haiek Laida hondartzan, edozein motatako kirola eskaintzen dute: Big Sup, Stand Up Padel, arraunketa, kanoak, e.a.... Eta Multi-Kirolak egiteko aukera Mendexan: Tirolina, Rapela, Tunelak, etabar...

7. Baliabideak

7.1. Giza baliabideak

Sukaldea:	pertsona 2
Garbiketa:	pertsona 1
Mantentzea:	pertsona 1
Administrazio eta kudeaketa:	pertsona 1
Pedagogi taldea:	8 pertsona
Begiraleak	taldeak beste egongo dira

Pedagogi taldea eta begirale guztiek gutxienez Magisteritza titulua daukate eta berba egingo duten hezkuntzan C1 titulua (ingeleraz edota euskeraz).

7.2. Baliabide materialak

Baratze 87.000 m²-ko lursail batean eraikita dago, ondoren aipatzen den eran banatuta aurkitzen delarik:

- 50.000 m²-ko lur soila orturako, aledun zuhaitzetarako eta astialdi eremuetarako erabiltzen da.
- Haritzek eta gaztainondoak osaturiko 27.000 m²-ko basoa.
- 10.000 m²-ko mendia.

Ondoren, Baratzen dauden eraikuntzak aipatuko ditugu, jakinik umeen beharrei eta ezaugarriei moldatu ditugula.

BASERRIA:	Dituen lau solairuak, ondoren azalduko moduan daude: Beheko solairua: sukalde, jantokia, irakasle gela, garbitokia, eta Bulegoa. 1. solairua: Haurren logelak eta komunak, irakasleen logela, erlegintza tailerra eta terraza. 2. solairua: Irakasleen logelak eta komuna, eta haurren logelak eta komunak. Ganbara
PABILIOIA:	Jantokiarekin bat egiten duen nabe zabala da, beraz baserriaren atzekaldeari erantsirik dago. Bertan, aurki daitezke Haur Hezkuntzako tailerra, perretxiko tailerra, jolaslekua, eta komunak.
KORTA:	Atzealdean kokaturik dagoen 2 solairutako eraikuntza. Hemen abereen ukuilua dago (behia txahalekin, ardiak, ahuntzak, astoa, untxiak, oilotegia, zaldiak, txerriak, antzarrak,, ahateak,...) . Goikaldean abereen pentsuak, lanabesak... biltzen dira. Eskulangintza, sukaldaritza eta zur lanketa tailerrak ere badaude.
NEGUTEGIAK:	850 m²-ko negutegi bat barazkien produkzioarako erabiltzen da, eta bestea, 500 m²-koa, beriz, loragintza tailerrarako.
ZALDIAN IBILTZEKO:	Bi toki ezberdin erabiltzen ditugu, bata estalpean eta bestea ez piszinaren ondoan.

Astialdirako kanpoko eta barruko gune ezberdinak daude: futbol eta saskibaloizelaia, jolaslekua, terraza, proiektore bat, ordenagailuak, soinu eta megafonia anplifikatzaile talde bi,...

7.3. Osasunerako zerbitzuak

Gerta litekeen edozein larrialditarako egoki prestatutik dauden botikin bi dauzkagu.

Behar izanez gero gure pediatararengana (3 minututara, autoz) joko genuke. Bere ordutegitik kanpo Gernikako ospitalera joango ginateke Larrialdietako zerbitzura eta behar izanez gero, Galdakaoko edo Gurutzetako ospitalera joango ginateke.

Eguneko 24 orduetan kotxeak eta etxeko arduradun bat prest egongo da edozein larrialdiri erantzuna emateko.

Nolanahi ere beti joan baino lehen, informatuko dizuegu baldin eta ez dadin ezgaraiko ordua izan. Diagnostikoa dugunean ere parte medikoa azaltzeko deituko dizuegu.